

Trans legea eta kirola



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA
ETA EHU-KO IRAKASLEA

Ez daitezela gu engainatzen saiatu. Trans legearen kontra agertzeko argudio nagusi kirola erabiltzen dutenek, haien beldurra proiektatzen ari dira besteok nahastu nahian. Are gehiago, esango nuke, ez dutela kirolari transik ezagutzen, ez direla trans pertsonen lekuan jarri, ez dituztela haien beharrak ulertzen –edo ez dituztela ulertu nahieta, kirola aitzaki, erresistentzia bortitzena erakusten dutela norbere genero identitatearen definizioaren askatasunaren aurrean. Aipatu legeak feministen artean azalarazi dituen ardurak eta ikuspegi desberdinek ez dute inondik inora biltzen gizon batek haren burua emakume definitzea kirolean iruzur egiteko emakumeen gain abantaila edukitzea asmoz. Akaso baten batek sinetsi dezake sistema androzentrista honetan sozializatu den gizon zis bat bere maskulinitatea definitzen duten ezaugarri identitarioetatik aldenduko dela kirolean azpijokoa egiteko? Emakumeen kirola gutxiesten duen, eta estatus sozial baxuagoa egotzen dion gizon horrek? Bada, ez. Kirol arloan lanean dihardugun feministoi, besteak beste, kirol arloaren zurruntasunak arduratzen digu, hain zuzen, egitura horrek gorputz ez

normatiboak sistematikoki diskriminatzeke dituen bidegabeko tresnek. Nazioarteko Batzorde Olinpiarrean aspaldi daude mahai gainean binarismo sexualaren bidezko sailkapenak dakartzan arazoak, eta zehazki, emakumezkoiek eskatzen zaien odol-litroko gehienezko nanomol kopuruak –jada ez baita politikoki zuzena emakumeei *azterketa medikoak* egitea, eta patriarkatuak beti aurkitzen ditu azalerazteko zirrikituak-. Testosterona, ditxosozko hormona. Kiroltasunaren oinarriko baloreetako bat berdintasuna izanik, zentzu zabalean, ezin uler daiteke sistema batek banaoak haien gorputzeko ezaugarrietatik kanpoan uzten dituen sailkapen erreduktionista bat egitea. Eta hain zuzen, horixe izango da datozen urteetan izango duen erronka handietako bat. Zein da orduan arazoa? Maskulinitate hegemonikoa, erresistentzia, eta beldurra. Beldurra, pribilegioak galtzeari, eta gizarteko aniztasun erreala eragiten duen (sasi) demokratizazio prozesuan protagonismoa galtzeari. Beraz, ez gaitzatela engainatu ez baikara legeaz hitz egiten ari, irmoki errotuta dagoen balore-sistema patriarkal baten erresistentziaz baizik. ●

Arrotzekin (ez) mintzatu



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Zenbat aldiz esan ote ziguten gurasoek arrotzekin ez mintzatzeko. Nik gogoan dudaren arabera, garai horretako agindurik behinenetako bat zen. Bada, lege horrekin jolastuz edo nolabait kontra eginez, arrotzekin mintzatea lelotzat hartu zuen 2009an, Leif K-Brooks 18 urteko estatubatuarrrak Omegle txata abiarazi zuenean: *Talk to strangers*. Banan-banako harreman elektronikoak zoriz gertatzea proposatzen zuen.

Geroago, asmakizun digitalak bilakaera izan zuen eta, iazko konfinamendu globalean, salaketak hasi ziren: hainbat herrialdeetako nerabeak (eta

haurrak) ere ari omen ziren sexu kontuak partekatzen (gizon) helduekin. Ondorioz Brooks-ek onartu zuen edukiak ez zirela beti egokiak, eta Apple eta Google erraldoiek aplikazioa kendu zuten sakelakoetatik.

Sarean jarraitzen du, baina, eta inguruko nerabeengana ailegatu berri da ikasgelan erabiltzen duten Chromebook bidez: modu klandestinoan, noski, eta klik batekin 18 urte dituztela adierazita.

Ilea bakandu zait. Zimur batzuk bildu ditut. Dagoeneko nerabe baten aita naiz. Eta gurasoak beldurtzen dituzten arrotzek esperoan segitzen dute. ●